



OSALAN

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

KPZ BATEKIKO OSASUN-ZAINTZA ITUNA



Erakunde autonomiaduna



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Enplegu eta Gizarte
Gaietako Saila



9 78-84-95859-549

P.S.N.: 6



OSALAN

*Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea*

*Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales*

KPZ BATEKIKO OSASUN-ZAINTZA ITUNA

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Enplegu eta Gizarte
Gaietako Saila

Departamento de Empleo
y Asuntos Sociales

Argitaraldia: □	Maiatza 2009
Ale kopurua: □	1.000 ale
© □	OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea □ Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Autonomiaduna □
Internet: □	www.osalan.net
Argitaratzailea: □	OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea □ Dinamita bidea, z/g, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)
Egilea: □	Aitor Guisasola Yeregui
Kolaboratzaileak: □	Juan Carlos Coto Fernández, Itxaso Bengoetxea Martínez, □ Gertrudis Odriozola Aranzabal, Maite Robertson Sangrador, □ Arrate Padilla Magunacelaya, Teresa Sáez de Ocariz Díaz de Otazu. □
Fotokonposizioa: □	HELVETICA PUBLICIDAD S.L.
Inprimaketa: □	Gertu - Oñati
ISBN: □	978-84-95859-54-9
L.G.: □	SS-864-2009



2003. urteko hasieran, "Kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin prebentzio-jarduerak hitzartzea" izeneko dokumentua argitaratu zuen OSALANek, urte hauetan zehar prebentzio-ekintzaren hitzarmena burutzeko erreferentziatzeko dokumentu izan dena, alegia.

Hala ere, "Osasun-zaintzaren arloko prebentzio-zerbitzuen jardunaren ebaluazioa eta kontrola" bezalako Proiektuak egin ondoren sortutako informazioak adierazten zuen, osasun-zaintzaren prebentzio-ekintza estali eta hitzartzearen inguruan hobe zitezkeen esparruak zeudela.

Osasun-zaintzaren hitzarmena, enpresak kanpo-baliabide batekin beren langileen osasun-zaintzaren behar bezalako estaldura egokia hitzartzen duela oro har, enpresaburuei eta, zehazki, ETEei, ziurtatzen laguntzeko tresnetako bat da.

Langileen osasun-zaintza arautzen duten araudien erreferentzietan oinarriturik, prebentzioko agenteen arteko harremanean gardentasuna kalitate-irizpide gisa barne hartzen duen eredu bat garatzen da orain aurkezten dugun dokumentuan.

Eredu honetan, besteak beste, berori garatzeko funtsezko bi puntu barne hartzen dira: batetik, prebentzio-zerbitzuek enpresaburuek eskaintzen dituzten baliabide eta jardueren inguruan informazio argia emateko beharra eta, bestetik, enpresaburu horiek beren enpresako prebentzio-helburuak lortzeko zuzenean esku hartu behar dutela.

Pilar Collantes Ibáñez

OSALANeko ZUZENDARI NAGUSIA

AURKIBIDEA

6. ~~II~~ OZ ITUN EREDUA. SARRERA.
9. ~~IIA~~ OSASUN ZAINZA. KONTZEPTUA.
10. ~~BE~~ OSASUN ZAINZA. LEGEZKO OINARRIAK
19. ~~KE~~ OSASUN ZAINZAKO ITUNA
27. ~~III~~ ERANSKINA
28. II. ERANSKINA



LOZ itun eredu. Sarrera.

2003ko otsailean OSALANEK "Concierto de Actividades Preventivas con un Servicio de Prevención Ajeno" dokumentua argitaratu zuen, arlo honetan enpresek eta kanpoko prebentzio zerbitzuek sinatzen dituzten itunak prestatzerakoan erreferentzia bat eskaintze aldera.

Prestatu zenean ezarri ziren **helburuak** hauek izan ziren:

- Itundutako prebentzio jardueren gutxieneko edukiei dagokienez enpresak eta langileak
 orientatzea.
- Itzaera honetako ituna osatzen duten atalak ezartzea

Helburuak zati batean lortu dira, eta dokumentua balioko erreferentzia dela frogatu da eta oso erabilia izan da. Hala eta guztiz ere, gaur egun dauden itun mota guztiak aztertuta, **langileen osasun zaintzari** dagokionez, hobetzea badute eta legeak eskatzen diena betetzera hel daitezke.

Hala, bada, azterketa horren emaitzetariko bat da itun horietako askotan alderdi orokorrak jasotzen direla, prebentzio lana aurrera eramateko jarduera eta baliabide zehatzak jaso beharrean, Prebentzio Zerbitzuen Araudiaren (PZA) 20. artikulua agintzen duen bezala.

Hobetzea helburu dugu, beraz:

- Itunetan **argitasuna** bilatzea, kontu orokorrak jasotzera mugatu ez daitezen, atal bakoitzaren edukia **zehatzuz**.

Horrela, eta goian esandako helburuei eutsita, prebentzio lanen itunei buruzko aurreko dokumentuan hasitakoa xehetasun handiagoz garatzea erabaki zen, osasuna zaintzearen arloan eragonda. Horretarako proposatzen da osasun **zaintzarako itun eredu** hau.

Eredua imitatu edo berregiteko proposatzen den erreferentzia puntua da. Sistema edo errealitate konplexu baten eskema teoriko bat ere bada, hura ulertzea errazteko prestatzen dena.

Aurkezten dugun dokumentuarekin prebentzioaren kontua eta hortik datorrena mahairatzerakoan abiaburutzat hartzen dugun erreferentzia puntu hori eta eskema hori azaltzen eta zabaltzen saiatuko gara.

Esana dugu itunik gehienek kontu orokorrak jasotzen dituztela, prebentzio lana burutzeko jarduera eta baliabide konkretuak bildu beharrean. Zuzenena da itun batek bere **indarraldian** abian jarriko diren **jarduera eta baliabide konkretuak** jasotzea. Hori da, jakina, enpresak ordaindu behar duen **prezioak** islatu behar duena.

Prebentzio beharrak, inolako dudarik gabe, **aldatu** egiten dira aldi batetik bestera eta enpresa batetik bestera. Baliatze jarduera eta kostu finko samarrak egotea, baina ezinezkoa da urtero egiten den horretan aldaketarik ez egotea, eta kostuari dagokionez, esate baterako, prezioak inflaziora egokitzea besterik ez. Horren interpretazio bat izan liteke enpresa horretan prebentzioari dagokionez aurrerapenik ez dagoela eta inolako onurarik sortzen ez duen urteko kostu bat dagoela, agian itun bat sinatuta dagoenez arau formalki betetzea eta, beraz, administrazioaren zehapenak saihestea salbuetsita.



Proposatutako helmugetara zuzendutako **plangintza** bat eta urte bakoitzari dagokion **programazioa** egoteak, lehenik eta behin, **aldi konkretu** baterako erabaki ditugun **helburuak** zehazteko aukera ematen digu. Hortik aurrera, haiek lortzeko behar diren **jarduera eta baliabide konkretuak** zehaztuko ditugu, bai eta horiek burutzeko **kostu ekonomikoak** ere. Horrela osasun zaintzaren prebentzio lanaren **aurrekontua** egin daiteke, gure prebentzio beharrei dagokienez eskaintzarik onena zein den erabaki daiteke eta gehien komeni zaigun ituna zein den ikus daiteke. Itundutakoa aurrera eraman ondoren, lortutakoa **ebaluatuko** dugu, bai **prebentzioaren** ikuspegitik bai ikuspegi **ekonomikotik**.

Gauzak egiteko modu honek **prebentzioaren kudeaketa** hori **enpresaren kudeaketa sistema orokorrean txertatzeaz** hitz egiteko aukera ematen digu; **txertatze hori ebaluatu egin behar baita**. □

Aurreneurriak hartzeak, lehenik eta behin, hartu behar ote ditugun eta zergatik hartu behar genituzkeen jakitea eskatzen du.

Arriskua, arrisku teorikoak, egon daude, eta gertatzeko posibilitatea probabilitateen eremuan neur dezakegu, eta hortik aurrerakoari esaten diogu eremu honetan arriskua.

Gure jomuga, langileek osasuna gal ez dezatela helburutzat hartzen dugun unetik, arrisku teoriko haiek gauzatu ez daitezen ahal den guztia egitea izango da, eta, horrela, benetako arrisku bilaka daitezela saihestea. Horra hor zer ulertzen dugun arriskuen prebentzioa diogunean, hau da, arrisku gisa ager ez daitezen saiatzea, arrisku teorikoak benetako arrisku bilakatzeko probabilitatea gutxituta.

Jomuga ezarri dugu. **Abiapuntua** zein den badakigu, jomugaraino **daukagun bidea** jakingo dugu, eta hara nola joan jakin beharko dugu. Normalean aurrera urraska egitea erabakitzea izango da, urrats bakoitzean helburu batzuk ezarrita. Laburbilduta, **plan** bat izango dugu proposatuta, bata bestearen segidako **programen** bitartez hurbiltzeko.

Aurrera eramateko, prebentzio kontuaren konplexutasuna eta tartean faktore asko daudela kontuan hartuta, guzti-guztiek parte hartzea beharko dugu: enpresaburuek, langileek, prebentzio zerbitzuek, administrazioak, gizarteak eta abar.

Eragile horietako bik, enpresak eta kanpoko prebentzio zerbitzuek, prebentzio arloko araudiaren menpeko harremana daukate. Harreman horren berri emateko eta nola hezuramaitzen den aztertzeko, alde biek itundu egiten dute, eta itun hori **prebentzio jardueren ituna** deritzon horretan jasotzen da.

Ari garen kasuan, prebentzio jarduerak prebentzioaren eremuetako batera mugatzen dira, **osasun zaintzara**.

Kontratua egin beharra prebentzioaren eragile bi horiek hartzen duten konpromisoa jaso beharretik dator, lehenengoa enpresan horren **arduraduna** delako eta bigarrena markatutako helburuak betetzera eramango gaituzten ekintzak burutzearen **arduraduna** delako. Erantzukizun konkretu horiez erantzun beharko da, bestela gerta liteke, eta gertatzen da, **ardura** horiek **argi** ez egotea, lausoak izatea eta halako gauza nork egin duen edo egin ez duen ahaztera hel gaitetzke.



Prebentzio Zerbitzuen Araudiaren 20. artikulua behar hori jaso eta arautzen du, eta, enpresaburuak prebentzio lana enpresaz kanpoko prebentzio zerbitzu baten edo batzuen bitartez garatzea erabakitzen duenean, prestazioa idatzita itundu beharko duela dio, eta gutxienez alderdi konkretu batzuk jaso beharko dituela, hain zuzen dokumentu honetan landuko ditugunak.

Horretarako, lehenik eta behin, **erreferentziako araudia zehatz-mehatz arakatu** dugu, eta ondoren **baliabideei eta jardueri dagozkien puntuak garatu** ditugu, izan ere osasun-zaintza itunean konkretuki jaso behar direnak baitira.

Azkenean, **check-list** bat sartu dugu, osasun zaintzako prebentzio lana egite aldera araudiak beharrezkotzat jotzen dituen alderdiak, berme handienarekin aurrera eramaten laguntzen dutenak eta, alegia, kasuan-kasuan konkretatu behar direnak itunean jasotzen diren egiaztatu ahal izateko.

Oharra. Dokumentu honen edukiak aldatu egingo dira erreferentziako araudia ere aldatzen den neurrian. Beraz, honen edukia aldaketa horien arabera berrikusten joango gara.



A- OSASUN ZAINTZA. KONTZEPTUA.

Osasun zaintza terminoak laneko arriskuen prebentziora orientaturik dauden zenbait ekintza hartzen ditu bere barruan, bai **taldeak** bai **gizabanakoak** kontuan hartzen dituztenak.

Osasun zaintzaren helburuak laburbilduta hauek dira:

1 Langileen taldekako eta banakako osasun egoeraz **jabetzea**

2 Langileen taldekako eta banakako osasun egoera laneko arriskuen mendekotasunarekin **erlazionatzea**

3 Antzemandako arriskuak kontrolatzeko behar diren neurriak **hartzea** eta lana pertsonen osasun egoeraren arabera egokitzea

4 Prebentzio neurrien eraginkortasuna **ebaluatzea** eta nahikoa ebaluatu eta kontrolatu ez diren arrisku egoerak identifikatzea

Taldeko zaintzak lanetik datozen kalteei buruzko datuak biltzea eskatzen du, helburu horiek betetzera heltzen lagunduko diguten azterketa epidemiologikoak egiteko.

Banakako zaintzak medikuntzako prozedurak aplikatzea eta probak administratzea eskatzen du, halaber helburu horiek betetzera heldu ahal izateko.

Osasun zaintzak langileen osasunean lanak duen eragina hobeto ulertzea bilatzen du, lan baldintzak hobetzeko, eta, ahalik eta lasterren, osasunari eragiten dizkion ondorio kaltegarriak identifikatu behar ditu txarrera joan daitezen saihesteko.

Osasun zaintza, Laneko Medikuntzaren arloari berari dagokion jarduera bada ere, **diziplina arteko** elkar ekintza eta osagarritasun erlazioa du prebentzio zerbitzuaren gainerako kideekin. Bestelako espezialistek ekoizitako informazioez elikatu behar du, eta, aldi berean, **arriskuen ebaluazioaren eta prebentzioaren plangintzaren** diziplina arteko eremuari bere jarduera espezifikoaren emaitzak eskaintzen dizkio.

**B- OSASUN ZAINTZA. LEGEZKO OINARRIAK****ESKUBIDEA**

Langileak laneko segurtasun eta osasun arloan **babes eraginkorra** izateko eskubidea du. **Bere osasun egoera zaintzea** eskubide horren osagaietako bat da.

EK 40.2 eta 43. art.
OLO 21.1.e art.
LAPL 14.1, 2 art.

BETEBEHARRA

Enpresaburuak langileak babestu **behar** ditu laneko arriskuen kontra, prebentzio lana enpresan **txertatuko** du, eta langileen segurtasuna eta osasuna babesteko behar diren neurri guztiak hartuko ditu, besteak beste, **osasun zaintza**, behar diren antolakuntza eta baliabideak eraturata.

LAPL 14.2 art.
PZA 9. art.
1216/1997 ED
258/1999 ED

Langileen osasuna zaintzea, eta enpresaburuak berak zuzenean bere gain hartu ez dituen beste jarduerak bezala, **prebentzioko antolakuntzaren** gainerako modalitateetariko batera jota bete beharko da. Izendatutako langileen kopurua eta baliabideak funtzio horiek ondo betetzeko behar direnak izan behar dute.

LAPL 31 art.
PZA 11 eta 13 art.

Prebentzio zerbitzu gisa jarduten duten erakunde espezializatuak enpresari behar duen aholkularitza eta laguntza emateko moduan egon behar dute, **itundutako jardueren** eremuan, eta **enpresarena berarena da horiek betearazteko ardura**.

PZA 19. art.

Enpresaburuak prebentzio lanaren jarraipen **ekintza iraunkorra** garatuko du.

LAPL 14.2 art.

PLANGINTZA

Ebaluazioaren emaitzak arrisku egoerak agerian jartzen dituzenean, enpresaburuak dagokion prebentzio lanaren **plangintza** egingo du arrisku horiek ezabatzeko edo kontrolatu edo gutxitzeko.

LAPL 31. art.
PZA 8. art.

Prebentzio lanaren plangintzak, beti ere, behar diren **giza baliabideak eta baliabide materialak** jasoko ditu, eta jarritako helburuak lortzeko behar diren **diru baliabideak** ere bai.

PZA 9.1 art.

Era berean, prebentzio lanaren **plangintzan txertatu** beharko dira **larrialdiko neurriak eta osasun zaintza**.

PZA 9.3 art.

Prebentzio lana gauzatzen den aldia urtebete baino luzeagoa bada, **urteko ekintza programa** prestatu beharko da.



EGITURA ETA BALIABIDEAK

Osasun zaintzak, prebentzio zerbitzuaren barruan bere eginkizuna betetzeko, bere **izaera espezifikorako eta medikuntza datu pertsonalen isilpekotasunerako** egokiak diren egitura eta baliabideak izango ditu.

LAPL 22. art.
PZA 18. art.
306/1999 Dtu. 17. art.
LAP 2. art.

ENPRESAN TXERTATZEA

Osasun zaintza enpresan **txertatuta** egongo da. Larrialdiko neurriak eta **osasun zaintza** prebentzio lanaren **plangintzan sartu** behar dira.

LAPL 31. art.
PZA 9. art.

GALDETZEA ETA PARTE HARTZEA

Enpresaburuak **langileei galdetu** beharko die zenbait neurri hartzeaz, besteak beste jarduera horiez arduratuko diren langileak izendatzeaz edo **kanpoko prebentzio zerbitzu** batera jotzeaz.

LAPL 33. art.

Langileen ordezkariak ere, jarrita dauden mugekin, euren eginkizunak betetzeko behar duten informazioa eta dokumentazioa **jasotzeko** eskubidea izango dute. **Muga** horien mendean dagoenean, **isilpekotasunaren** errespetua bermatuta baino ezingo da eman.

LAPL 36 eta 39. art.
LAP 2. art.

KPZ-EN BETEKIZUNAK

Prebentzio zerbitzutzat prebentzio lanak egiteko behar diren **giza baliabide eta baliabide materialen multzoa** hartuko da, eta horretarako **aholkularitza eta laguntza** emango die enpresaburuari, langileei eta horien ordezkariari eta ordezkari organo espezializatuei.

LAPL 31. art.
PZA 3.2 art.

Prebentzio zerbitzuak enpresari aholkularitza eta laguntza emateko moduan egongo dira, arrisku moten arabera eta:

PZA 31. art.

- **Lehen sorospenak** emateaz eta **larrialdi planez**.
- Langileen **osasun zaintzaz** lanetik eratorritako arriskuez.



Erakunde espezializatuen betekizunak prebentzio zerbitzu gisa jardun ahal izateko hauek dira: □

PZA 17. art.
306/1999 Dtu. II.
eranskina, 1 y 2. ptu

- a. **E**uren lana egiteko behar dituzten **antolakuntza, instalazioak, langileak eta tresnak** izatea. □
- b. **I**zan lezaketen erantzukizuna estaltzeko bermea eratzea. □
- c. **T**untutako enpresekin merkataritzazko, finantzazko edo bestelako loturarik ez izatea, prebentzio zerbitzu gisa jarduteaz beste, euren independentziari kalte egin liezaieketenik eta euren jardueren emaitzan eragin lezaketenik. □
- d. **O**sasun **Administrazioaren onarpena** lortzea, **osasun izaerako alderdiei** dagokienez. □
- e. **I**an **Administrazioak** egiaztatuta egotea.

Osasun zentro, zerbitzu edo gaixotegien titularrak behartuta daude osasun zentro, zerbitzu edo gaixotegia **OSALANek** baimena emanda **dagoela kanpoko kartelerian** aipatzera, eta jendearentzako harreragunean argi ikusteko lekuan ipini behar dute funtzionamendu baimenari dagokion bereizgarria.

31/2006 Dtu. 7. art., e eta f ptu.

Erakunde espezializatuek **zuzenean hartu** beharko dituzte euren gain ituntzen dituzten **funtzioak** eta euren esku utzi diren prebentzio lanak enpresaren **jardueren multzoan eta** enpresaren **hierarkia maila guztietan benetan txerta daitezen** lagundu beharko dute, nahiz eta zentro espezializatu edo baimendunekin subkontratatu Zerbitzuaren oinarrizko jardueratik kanpora geratzen diren zenbait jarduera, hala nola diagnostikorako teknika osagarri batzuk.

PZA 19 art.
306/1999 Dtu. II.
eranskina, 3. ptu.

Osasun zentro, zerbitzu eta gaixotegien titularrak baimendutako sorospen eskaintzaren **babespeko osasun arreta** ematen dutela **eta** baimen horretan **babestuta ez dagoena** leku horietan emango **ez dela bermatzera** behartuta daude.

31/2006 Dtu. 7. art., a eta b ptu.

Prebentzio zerbitzuak **diziplina arteko izaera** edukiko du, eta bere funtzioak betetzeko baliabide egokiak izan beharko ditu.

LAPL 31. art.

Subkontratatu daitezkeen osasun jarduerak eta subkontratazioaren baldintzek, aurkezten den prebentzio egitasmoa baimentzeko prozeduran eskumena duen Osasun Agintaritzak **adierazpidez baimenduta** egon beharko dute.

LAPL 31. art.
306/1999 Dtu. II.
eranskina, 3. ptu.

Osasun **ekipamendu mugikor osagarriak**, salbuespen gisa, prebentzio zerbitzuaren muga geografikotik kanpora (60 minutu edo 75 km) baino ezingo dira erabili, elkartutako enpresa edo lantokia handik 75 km baino urrunago eta 125 km baino hurrago dagoenean.

306/1999 Dtu. II.
eranskina, 4. ptu.



OSASUN-LANGILEAK

Langileen osasuna zaindu eta kontrolatzeko neurriak **egiazaturiko trebetasun teknikoa, prestakuntza eta gaitasuna duten osasun langileek** hezurmamituko dituzte. Osasun langileek euren eginkizunak betetzeko behar duten kualifikazioa izan beharko dute: medikuek Laneko Medikuntzako espezialistak edo enpresako medikuaren diploma duten sendagileak **izan beharko dute**. Erizainek Enpresa Erizaintzako diplomadunak izan beharko dute.

LAPL 22. art.
PZA 37.3.a art.
306/1999 Dtu. II.
eranskina, 1.b ptu.
LAP 3. art.

Oinarritzko Osasun Unitatea lan edo enpresa mediku batek eta enpresa-erizain batek osatzen dute, lanaldi osoan.

PZA art. 37.3.a
306/1999 Dtu. II.
eranskina, 1 ab ptu.

Osasun zentro, zerbitzu eta gaixotegien titularrak behartuta daude, ematen den osasun laguntza, hartarako **behar den titulua duten edo gaituta dauden pertsonak** soilik ematen dutela **bermatzera**, eta **langile guztiak** zuzen **identifikatuta** izatera, janzkien leku ikusgai batean izena eta lanbide kategoria erakutsita.

31/2006 Dtu., 7. art., c eta g ptu.

AUTONOMIA

Enpresaburuak osasun zaintza bermatuko die langileei, eta horien **onespena** beharko da aurrera eramateko, salbuespenak salbuespen, hau da, arrisku espezifikoak babesteaz lege xedapenik badago edo lan baldintzek langileen osasun egoeran dituzten ondorioak ebaluatzeko edo langilearen osasun egoera berarentzat, gainerako langileentzat edo enpresarekin harremana duten beste pertsonentzat arriskutsua den egiaztatze miaketak ezinbestekoak badira ez da beharko horien onepenik.

LAPL 22. art.
LAP 2 eta 8. art.

Osasun zaintza beti gauzatuko da langilearen **pribatutasunerako** eta pertsona **duintasunerako** eskubidea eta bere osasun egoerari buruzko informazio guztiaren **isilpekotasuna** errespetatuz.

EK 18. art.
OLO arts. 10,23 y 61
LAPL art. 22
PZA art. 18
Dtu. 306/1999 17. art. eta II. eranskina, 1.a eta 2.d ptu.
LAP 2. art.

Emaitzak langileei jakinaraziko zaizkie eta medikuntzako informazio pertsonala langileen osasun zaintza daramaten medikuntza langileek eta osasun agintariak baino ez dute **jasoko**, eta ezingo zaio enpresaburuari ez bestelako pertsonari eman langilearen **onespen adierazirik** gabe.

LAPL 22. art.
LAP 2 eta 7. art.

Langileak bere laneko historia klinikoaren kopia izateko eskubidea du, eta orri zenbakidunetan emango zaio kontratu harremana amaitzean, baina kontratuaren indarraldian eta amaieran nahi duen **informazio** guztia eskatu ahal izango du.

PZA 10. art.
LAP 4, 14, 16, 17, 18, 19
eta 22. art.

Langileak lanpostuan jarduteko duen gaitasunaz edo **babes eta prebentzio neurriak** hartu edo hobetu beharraz egiten diren miaketan **ondorioak** jakinaraziko zaizkie enpresaburuari eta prebentzio arloan ardurak dituzten pertsona edo organoei, prebentzio arloan dituzten eginkizunak zuzen bete ahal ditzaten. Osasun zaintzaren emaitzak **ezin** erabil daitezke **bereizkeria** helburu hartuta ez langilearen **kalterako**.

LAPL 22. art.
LAP 5 eta 6. art.



LANGILE

- **BEREZIKI SENTIKORRAK.**
- **EMAKUME HAURDUNA, ERDIONDOKOA EDO EDOSKIALDIKOA.**
- **ADINGABEAK.**

Langileen euren ezaugarri pertsonalak edo egoera biologiko ezagunagatik lanaren ondoriozko arriskuekiko **bereziki sentikorrek** diren langileen babes berariaz bermatuko du enpresaburuak, ezgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa aitortuta dutenena barne. **Emakume haurduna, erditu berri dena edo bularra emateko garaian dagoena** eta **adingabeak** ere bereziki babestuko ditu. □

LAPL 25, 26 eta 27. art.

Prebentzio zerbitzuko **osasun langileek** bereziki aztertu eta balioetsiko dituzte **haurdunaldian edo haurra izan berritan dauden emakumeei, adingabeei eta** arrisku batzuekiko **bereziki sentikorrek diren langileei** eragiten dieten arriskuak, eta prebentzio neurri egokiak proposatuko dituzte.

PZA 37.3.g art.

ENPRESABURUAK EMAN BEHAR DITUEN DATUAK

Prebentzio zerbitzuko **osasun langileek langileen artean izaten diren gaixotasunak eta osasunagatiko lan kanpoaldiak ezagutu behar dituzte**, gaixotasunaren edo absentiaren kausaren eta lantokian ager daitezkeen osasunerako arriskuen arteko erlazio oro identifikatu ahal izateko soilik.

PZA 37.3.d
306/1999 Dtu. 9 art.

Prebentzio zerbitzuko **osasun langileek** lanpostuaren deskripzio zehatza, bertan ematen duen denbora, lan baldintzen azterketan antzemandako arriskuak, hartutako prebentzio neurriak eta lanpostuko arriskuen berri eman zaiola langileak adierazten duen agiria **ezagutu behar** dituzte.

PZA 37.3.c
306/1999 Dtu. 9. art.



TALDEAREN OSASUN ZAINTZA

EPIDEMIOLOGIA

Prebentzio zerbitzuko osasun langileek langileen osasun zaintzaren emaitzak eta arriskuak balioestearen ondorioak irizpide epidemiologikoekin aztertu beharko dituzte eta zerbitzuaren gainerako kideekin **elkarlanean arituko dira lanbideko arriskuen mende egotearen eta osasunerako kalteen artean** egon litezkeen **erlazioak ikertu eta aztertze**ko eta laneko baldintzak eta ingurugiroa hobetzera bideratutako **neurriak proposatzeko**.

PZA 5. art.
PZA 37.3.f
LAP 6. art.

Langileen osasunaren kalteak detektatzen direnean edo **aldi-roko kontrolen** bitartez, baita **osasun zaintzarako** egiten direnen bitartez ere, prebentzio lanak ezegokiak edo gutxiegi direla nabaritzen denean egingo da arriskuen hasierako ebaluazioa. Horretarako hauen emaitzak hartuko dira kontuan:

PZA 6. art.
LAP 6. art.

- **Osasunerako** gertatu diren **kalteen kausei** buruzko **ikerketarenak**.

- **Egoera epidemiologikoaren** azterketarenak, osasun-informazio sistemak edo eskura dauden bestelako iturriek emandako datuen arabera.

**PROTOKOLOAK**

Osasun zaintzari **berariazko protokoloak** edo langileak dituen arrisku faktoreetarako dauden bestelako balibideak ezarriko zaizkio. Osasun eta Kontsumo Ministerioak eta autonomia erkidegoek, gai diren zientzia elkarteei entzun ondoren, eta gizarte-eragileen parte-hartzeaz Osasun Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera, kasu bakoitzaren aldirokotasuna eta berariazko edukia ezarriko dituzte.

Osasun azterketek, beti ere, laneko historia klinikoa izango dute barne, eta horietan anamnesi datuez, miaketa klinikokoez eta kontrol biologikokoez gain eta lanari datzekion arriskuen araberako ikerlan osagarriez gain, lanpostuaren deskripzio xehea, bertan ematen den denbora, lan baldintzak aztertzerakoan antzemandako arriskuak eta hartutako prebentzio neurriak jasoko dira. Era berean, eskura edukiz gero, aurreko lanpostuen azalpena, horietan zeuden arriskuak eta horietako bakoitzean emandako denbora ere jasoko dira.

PZA 37.3.c
306/1999 Dtu. 8. art.
487/1997 ED 6. art.
488/1997 ED 4. art.
664/1997 ED 8. art.
665/1997 ED 8. art.
1124/2000 ED art.
bakarra
349/2003 ED art. bakarra
1389/1997 ED 8. art.
374/01 ED 6. art.
783/01 ED. 39, 40, 41, 42,
43, 44, 45 eta 46. art.
396/2006 ED 16. art.
286/2006 ED 11 art.
LOZ protokoloak:
- Arnasbidezko
anesteziazailak
- Agente biologikoak
- Agente zitostatikoak
- Kanpo albeolitis
alergikoa
- Amiantoa
- Laneko asma
- Binil kloruro monomeroa
- Laneko dermatosiak
- Zamak eskuz erabiltzea
- Mugimendu errepikatuak
- Neuropatiak
- Etilen oxidoa
- Datuak bistaratzeko
paintailak
- Pestizidak
- Beruna
- Jarrera behartuak
- Erradiazio ionizatzaileak
- Zarata
- Silikosisia eta bestelako
pneumokoniosiak

OSASUN AZTERKETA GUTXIENKO ALDIROKOTASUNA

Prebentzio zerbitzuko osasun langileek langileen osasunaren ebaluazioa egingo dute hasieran lanean hasi ondoren edo osasunerako arrisku berriak dituzten berariazko zereginak eman ondoren.

PZA 37.3.b

Prebentzio zerbitzuko osasun langileek langileen osasunaren **ebaluazioa** egingo dute **aldi-aldi**.

PZA 37.3.b

Prebentzio arloko osasun langileek osasun arrazoiagatiko kanpoaldi luzearen ondoren lanera **itzultzen** diren langileen osasunaren **ebaluazioa** egingo dute, jatorria lanbidean ote duen jakin eta langileak babesteko ekintza egokia gomendatzeko.

PZA 37.3.b



LAN BIZITZAREN ONDORENGO LOZ

Lanari datzekion arriskuen izaerak beharrezko egiten duen kasuetan, langileek euren osasun egoera aldiro zaintzeko duten eskubidea lan harremana amaitu ondoren ere luzatu beharko da Estatuaren Osasun Sistemaren bitartez.

LAPL 22. art.
PZA 37.3.e
306/1999 Dtu. II. art.
LAP 5 eta 22. art.

LEHEN SOROSPENAK ETA URGENTZIAKO ARRETA

Kasuan-kasuan, lantokian dagoen **prebentzio zerbitzuko osasun langileek lehen sorospenak eta urgentziako arreta** eskaini behar dizkiete lantokian istripuak edo ondoezak jota gertatzen diren langileei.

Jarduera proiektuan ezarrita geratu **behar** dute enpresa elkartuetan lehen sorospenetarako, ebakuaziorako eta lekualdaketarako jarduteko bideak; prozedurak eta bete beharreko eskumenak azaltzen dituen **jarduera protokolo** gisa.

LAPL 31. art.
PZA 37.3.h
306/1999 Dtu. II.
eranskina, 2.e ptu.

ISILPEKOTASUNA

Osasun datuak edo bestelako datu pertsonalak automatizatuta tratatzen badira, Datuak Babesteko Lege Organikoaren arabera tratatu beharko dira.

Fitxategi automatizatuen segurtasun neurriak datu pertsonalak dauzkaten fitxategi automatizatuen segurtasun neurrien araudiaren arabera egon beharko dira.

Datu pertsonalak, aplikatzen zaizkien xedapenetan edo, kasua bada, tratamenduaren arduradunaren eta interesdunaren arteko kontratu-harremanean ezarritako epeetan gorde beharko dira. Negozio-harremana amaitutakoan, datuak bertan behera utzi beharko dira eta, kasua bada, blokeatu beharko dira Legearen 16. artikuluan agintzen den bezala. Legeak dioen arabera eginbeharretarako datuak baino ezin dira gorde, behar bezala blokeatu ondoren.

15/1999 DBLO:
II. kap. 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10,
11, 12 eta 26. art.
III. kap. 15 y 16. art.
994/1999 ED 4.3 eta 6.
art. eta IV. kap. (Goi
mailako segurtasun
neurriak)
15/1999 DBLO III. kap.
16.5 art.
LAP 16, 17 eta 18. art.

Prebentzio zerbitzua aldatzen denean, langileen osasun zaintzari buruzko datuak prebentzio zerbitzua ematen duen erakunde berriari ematea legeak baimentzen duen datu-lagapen kasu bat da.

15/95 DBLO. II.2.a, 23.1
eta 30.3 art.
PZA 37.3.c art.



DOKUMENTAZIOA

Enpresaburuak bere eginbeharrei buruzko **dokumentazioa** prestatu eta gorde beharko du: Laneko arriskuen **prebentzio plana**, laneko segurtasun eta osasunerako **arriskuen ebaluazioa**, **prebentzio lanaren plangintza**, langileen **osasun egoeraren kontrolak egitea** eta kontrolotatik ateratako ondorioak eta langileari egun bateko lanerako ezgaitasuna baino luzeagoa eragin dioten **lan istripuen eta lanbide gaixotasunen zerrenda**.

LAPL 23. art.
306/1999 Dtu. 9. art.

Prebentzio zerbitzuak laneko historia klinikoa eduki beharko du, langileen artean gertatzen diren **gaixotasunen zerrenda** eta **osasun arrazoiagatiko lan kanpoaldiak** jasoko dituena.

306/1999 Dtu. 9 art.
LAP 2, 14, 15, 16, 17, 18
eta 19. art.

Prebentzio zerbitzuko **dokumentazioa osasun agintarien** esku jarri beharko da, enpresetan egiten diren osasun ekintzen alorreko eginkizunak **ebalatu eta kontrolatzera** zuzendutako baliabide egokiak jartzeko beharra betetzeko.

LAPL 23. art.
LAP 16 eta 23. art.

Prebentzio zerbitzuaren **dokumentazioa informazio sistema** egokiak ezartzeko ere osasun agintarien esku jarri beharko da, eskumena duten lan agintaritzekin batera, laneko **arriskuen mapak** prestatu ahal izateko, langileen osasunari eragin diezaioketen patologien identifikazio eta prebentziorako **azterlan epidemiologikoak** egin ahal izateko eta langileen osasunarekin zerikusia duten **azterlan, ikerketa eta estatistikak** prestatu eta zabaltzeko.

OLO 21. art.
LAPL 10 eta 23. art.
PZA 39. art.
LAP 6, 16 eta 23. art.

Prebentzio zerbitzuek **euren jarduera eremuko zaintza epidemiologikoa** egingo dute, eta Osasun Sailaren menpeko Euskal Herriko Zaintza Epidemiologikoaren Sistemak antolatutako osasun kanpainetan eta sare epidemiologikoko jardueretan **lankide** izango dira.

306/1999 Dtu. 12. art.
LAP 23. art.

Prebentzio zerbitzua lankide izango da osasun arloko eskumena duten herri administrazioek antolatzen dituzten osasun eta epidemiologia kanpainetan.

PZA 38. art.

Prebentzio zerbitzua lankide izango da osasun arreta primarioko zerbitzuekin eta osasun laguntza espezializatukoekin, lanarekin zerikusia duten gaixotasunak diagnostikatu, tratatu eta bizkortzen, eta osasun eskumena duten administrazioekin, plangintzan sartzan den laneko osasunaren jardueran.

PZA 38. art.



C- OSASUN ZAINTZAKO ITUNA

Prebentzio lanaren ituna ezarri **beharra** Prebentzio Zerbitzuen Arautegiaren **20. artikuluan** jasota dago.

Enpresaburuak prebentzio lana enpresatik kanpoko prebentzio zerbitzu baten edo batzuen bitartez egitea erabakitzen duenean, prestazioa **idatzita itundu beharko** du.

Hona hemen osasun zaintzako itun batean sartu behar diren **gutxieneko edukiak**:

- a. Enpresaz **kanpoko prebentzio zerbitzu** gisa diharduen erakunde espezializatuaren
identifikazioa.
- b. **Jardueraren hartzaile izango den enpresaren identifikazioa**, eta jarduera hori enpresaren zein **lantokitan** gauzatuko den zehaztea.
- c. Enpresan garatu beharreko prebentzio lanaren zertzeladak, jarduera horiek burutzeko **ekintza zehatzak** eta **baliabideak** zehaztuta.
- Jarduera horietan, besteak beste, **nahitaez sartuko da laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean txertatzearen eraginkortasunaren balioespena**, itundutako prebentzio lanetan laneko arriskuen **prebentzio plana** ezartzen eta aplikatzen dela aztertuz.
- d. Langileen **osasun-zaintza jarduera**.
- e. Itunaren **iraupena**.
- f. Itunaren **baldintza ekonomikoak**.

PZAren 20. artikuluan zehazten denez, prebentzio zerbitzu gisa jarduten duten erakunde espezializatuek eskumena duten lan eta osasun agintaritzen esku eduki beharko dute **urteko oroitidazkia**, aldi horretan zerbitzu eman dieten enpresak edo lantokiak bereizita jasoko dituen, eta zerbitzuon izaera kasuan-kasuan adieraziko duena.

Halaber, prebentzio zerbitzu gisa diharduten enpresei Laneko Arriskuen Prebentzioko Legearen 39. artikuluko 2 d) atalak aipatzen dituen **urteko oroitidazkia eta urteko programazioa** eman behar dizkiete, artikuluko horretan jasotzen den bezala **Segurtasun eta Osasun Batzordeak** ezagutu ahal ditzan.

Osasun zaintzako itunaren xede diren baliabide eta jarduerari dagozkien **c eta d puntuak** garatuko ditugu.

Gutxieneko **baliabideak** legeak eskatzen dituen beharkizunen arabera konkretatzen dira. **Jarduerak**, bestalde, orokorrean azaltzen dira, aurkezten duguna bezalako dokumentu batean ezin baita bestetara izan, eta gutxieneko batzuk ematen ditugu honetan ere. Jarduera eta baliabide hauei buruzko puntuatariko bakoitza enpresa bakoitzaren eta une bakoitzeko beharretara egokituta garatu behar da, **eta horixe da itunean jaso behar dena**.



PZA-REN 20. ARTIKULUKO C ETA D PUNTUEN GARAPENA

- 1- ITUNAREN HELBURUA
- 2- OSASUN ZAINZAKO BALIABIDEAK ETA EKINTZAK
- 3- ERAGINKORTASUNA BALIOESTEA
- 4- OROITIDAZKIAK

1- ITUNAREN HELBURUA

Lortu beharreko **helburua** ezagutu behar da (adib., lanbide gaixotasunak % 10 gutxiago izatea) gauzatuko diren **baliabide eta ekintzak** plangintzaren eremuan zehaztu ahal izateko, eta ondoren osasun zaintzaren eta horren integrazioaren **eraginkortasuna balioetsi** ahal izateko.

Helburua aldatu egingo da enpresa batzuetatik besteetara bakoitzaren prebentzio unearen arabera.

Gutxienezko baliabide eta ekintzak gure lege-araudian jasota daude, baina behar diren baliabideak eta egiten diren ekintzak enpresa bakoitzaren helburuen arabera eta helburuok lortzeko prebentzio lanaren plangintzaren arabera egingo dira.

Horregatik gomendatzen da **helburua** jartzea, itunak iraungo duen **denbora** horretan osasun zaintza ituntzetik espero den **onura** zehaztea, garapen **kronograma** prestatzea eta prebentzio lanok **nork** egin behar dituen ezartzea. **Diru ordaina** ere jarri behar da.

2- OSASUN ZAINZAKO BALIABIDE ETA EKINTZAK

Prebentzio zerbitzuen osasun jardueraren itunean **gutxienez** sartu behar diren ekintza konkretuak eta baliabideak azalduko ditugu atal honetan, hau da, PZAren 20. artikuluko **c eta d puntuak** garatuko ditugu.

2.1- BALIABIDEAK

- 2.1.1- Baliabide materialak
- 2.1.2- Giza baliabideak

2.2- EKINTZAK

- 2.2.1- Taldearen osasun zaintza
- 2.2.2- Banakako osasun zaintza
- 2.2.3- Larrialdiko eta lehen sorospeneko neurriak
- 2.2.4- Osasun zaintzaren bestelako zertzeladak



2.1- BALIABIDEAK

Prebentzio Zerbitzuak duen **Osasun Baimenaren Ebazpenak** aukera ematen dio enpresari, kontratatzen den jarduera gauzatzeko, prebentzio zerbitzuak gutxieneko betekizunak, giza **baliabideak** eta baliabide materialak, betetzen dituela jakiteko.

Baimen hori lortzeko osasun-zaintza arloak jarduera horiek egiteko behar diren **antolakuntza, instalazioak eta tresnak** eduki behar ditu.

Goian aipatutako betekizunak aurretiaz eta oro har jarduteko eskatzea badagoenez, gomendagarria da itunean betekizun horien baldintza partikularrak agertzea (adib., itunean jasotzen diren jarduerak egiten egunean edo astean orduen % honenbestean arituko diren KPZ-ko osasun langileak). Era berean, erabiliko dituzten baliabide materialak agertu beharko dute (erreferentziako osasun zentroa, kokapena eta abar)

2.1.1- Baliabide materialak

EAEko prebentzio zerbitzuen osasun ekintzei buruzko uztailaren 27ko 306/1999 Dekretuaren II. eranskinak, abuztuaren 20ko 159. EHAA, baliabide horiek zein diren zehazten du 2. puntuan.

Itunak zehaztu egin behar ditu, enpresa bakoitzak euren esku jartzen dituen baliabideak adierazita (erreferentziako osasun instalazioak...).

2.1.2- Giza baliabideak

EAEko prebentzio zerbitzuen osasun ekintzei buruzko uztailaren 27ko 306/1999 Dekretuaren II. eranskinak, abuztuaren 20ko 159. EHAA, baliabide horiek zein diren zehazten du 1. puntuan, eta medikuek Laneko Medikuntzan espezialistak edo Enpresako Medikuen diploma duten sendagileak izan behar dutela dio, eta erizainek, berriz, Enpresa Erizaintzako diplomadunak (Oinarrizko Osasun Unitatea).

Itunak konkretatu egin behar ditu (izendatu zaien OOU...)

2.2- OSASUN ZAINTZAN SARTZEN DIREN EKINTZAK

2.2.1- Osasun-zaintza itunean jaso behar diren **gutxieneko ekintzak** hauek dira:

Taldearen osasun zaintza

Banakako osasun zaintza

Larrialdiko eta lehen sorospeneko neurriak

Arrisku ebaluazioaren berrazterketa

2.2.1.1- Taldearen osasun zaintza

Ekintza konkretuak eta behar dituzten baldintzak itunean jaso behar dira eta, gutxienez, hauek dira:

Gaixotasunen eta osasunagatiko kanpoaldien berri jakitea

Epidemiologia



2.2.1.1.1- Gaixotasunen eta osasunagatiko kanpoaldien berri jakitea

Badakigunez, prebentzio zerbitzuko **osasun-langileek langileen artean gertatzen diren gaixotasunak eta osasun arrazoiagatik gertatzen diren lan kanpoaldiak ezagutu behar** dituzte. Horregatik **enpresaburuak** gaixotasun horiek eta osasunagatiko kanpoaldi horiek jakinarazteko **betebehar korrelaziozkoa** du, gaixoaldi luzeak bereziki.

Enpresak eta KPZk gaixotasunen eta osasunagatiko lan kanpoaldien berri emateko **komunikazio prozedura** formalizatuak erabil ditzatela gomendatzen da.

Prozesu hori beharrezkoa da PZk delako langilearen gaitasuna balioets dezan berriro laneratu aurretik, horrela dokumentu honetako 2.2.1.2.4. atalean azalduko dena betez.

2.2.1.1.2- Epidemiologia

Prebentzio zerbitzuko **osasun langileek langileen osasun zaintzaren emaitzak eta arriskuen ebaluazioarenak irizpide epidemiologikoekin aztertu beharko dituzte eta** zerbitzuko gainerako kideekin **lankidetzan** arituko da **lanbideko arriskuen mende egotearen eta osasunerako kalteen artean** izan litezkeen **zerikusiak ikertu eta aztertzeko** eta laneko baldintzak eta ingurugiroa hobetzera bideratutako **neurriak proposatzeko**.

Prebentzio zerbitzuaren osasun arloak zaintza epidemiologikoa egingo du bere jarduera eremuan, eta Osasun Sailaren menpeko Euskal Herriko Zaintza Epidemiologikoaren Sistemak antolatutako osasun kanpainen eta sare epidemiologikoko jardueretan **lankide** izango da.

2.2.1.2- Banakako osasun zaintza

Ekintza zehatzak eta horiek egiteko baldintzak itunean jaso daitezke, eta hauek dira:

2.2.1.2.1- Osasun zaintza **berariazko protokoloen** edo bestelako baliabideen mende egongo da, langilea mende hartzen duten bestelako arrisku faktoreak kontuan hartuta.

2.2.1.2.2- Prebentzio zerbitzuko osasun langileek langileen osasunaren ebaluazioa egingo dute **hasieran lanean hasi** ondoren edo osasunerako **arrisku berriak dituzten berariazko zereginak** eman ondoren.

2.2.1.2.3- Prebentzio zerbitzuko osasun langileek langileen osasunaren ebaluazioa egingo dute **aldi-aldi**.



2.2.1.2.4- Prebentzio arloko osasun langileek osasun arrazoiagatik **kanpoaldi luzearen ondoren** lanera itzultzen diren langileen osasunaren ebaluazioa egingo dute, jatorria lanbidean ote duen jakin eta langileak babesteko ekintza egokia gomendatzeko.

2.2.1.2.5- Langileen euren ezaugarri pertsonalak edo egoera biologiko ezagunagatik lanaren ondoriozko arriskuekiko **bereziki sentikorrek** diren langileen babesa enpresaburuak berariaz bermatuko duela jasoko da, ezgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa aitortuta dutenena barne. **Emakume haurduna, erditu berri dena edo bularra emateko garaian dagoena** eta **adingabeak** ere bereziki babestuko ditu.

Prebentzio zerbitzuko **osasun langileek haurdunaldian edo haurra izan berritan dauden emakumeei, adingabeei eta** arrisku batzuekiko **bereziki sentikorrek diren langileei** eragiten dieten arriskuak bereziki aztertu eta balioetsiko dituztela eta prebentzio neurri egokiak proposatuko dituztela ere jasoko da.

2.2.1.2.6- Lanari datzekion arriskuen izaerak beharrezko egiten duen kasuetan, langileek euren osasun egoera aldiro zaintzeko duten eskubidea lan harremana amaitu ondoren ere Estatuaren Osasun Sistemaren bitartez luzatu beharko dela ere jasota utzi behar da. Horrela, langileek bere laneko historia klinikoaren kopia jasoko dute, orri zenbakidunetan, **kontratu harremana amaitzean**, baina kontratuaren indarraldian eta amaieran nahi duten **informazio** guztia eskatu ahal izango dute.

2.2.1.3- Larrialdiko eta lehen sorospenerako neurriak

Kasuan-kasuan lantokian dagoen **prebentzio zerbitzuko osasun langileek** lantokian istripuak edo ondoezak jota gertatzen diren langileei **lehen sorospenera eta urgentziako arreta** eskaini behar dizkietela jasoko du itunak.

Baimena edukitzeko, **enpresa** elkartuetan lehen sorospenerarako, ebakuaziorako eta lekualdaketerako jarduteko bideen inguruan prozedurak eta bete beharreko eskumenak azaltzen dituen **jarduera protokolo** bat ezarri behar izan du eta badaukala egiaztatu behar izan du prebentzio zerbitzuko osasun arloak, eta enpresek **ezagutu behar** dute.

2.2.1.4- Arrisku ebaluazioaren berrazterketa

Langileen osasunaren kalteak antzematen direnean edo **aldi-roko kontrolen** bitartez, baita **osasun zaintzarako** egiten diren bitartez ere, prebentzio lanak ezegokiak edo gutxiegi direla nabaritzen denean **berraztertu** egingo da arriskuen hasierako **ebaluazioa**, osasun langileek parte hartuta.



2.2.2- Osasun zaintzaren bestelako zertzeladak

Osasun zaintzak gaixotasunen lehen mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako prebentzioarekin zerikusia duten zertzeladak hartzen ditu bere barruan, eta prebentzio zerbitzuak egingo duen langileen osasun zaintzako jardueren artean bilduta egon behar dute.

Itunean, gainera, komeni da isilpekotasunarekin eta dokumentazioarekin zerikusia duten zertzeladak jasotzea, horiek jakiteak enpresari eta prebentzio zerbitzuari osasun zaintzaren eskakizunak bete ahal izaten lagunduko baitie.□

- Lehen mailako prebentzioa□
- Bigarren mailako prebentzioa□
- Hirugarren mailako prebentzioa□
- Isilpekotasuna□
- Dokumentazioa

2.2.2.1- Lehen mailako prebentzioa

Gaixotasun jakin bat agertu aurretik martxan jartzen den osasun-jarduera multzo bat da, eta hauek hartzen ditu:

1- **Osasunaren sustapena**, hau da, enpresako gizabanakoengan eragiten duten ekintzen bidez langileen osasuna bultzatu eta aldezte; esate baterako, tabakoaren aurkako kanpainak birrikako biziari eta tabakoari lotutako beste gaixotasunei aurrea hartzeko eta droga-menpekotasunari aurrea hartzeko.

2- **Osasunaren babesa**; esate baterako, lan giroko txertaketak edo higiene industrialetik eratorritako jarduerak. Laneko ingurugiroan eragiten duten osasun sustapeneko eta babeseko jarduerak ez ohi dituzte osasun-langileek egikaritzen, baina beste batzuk bai, hala nola txertaketa.

3- **Prebentzioaren alorreko gomendioak**, lan baldintzei buruzkoak, kalteak gertatu aurretik. Garrantzi handiko zenbait alderdi azpimarratzen dira, hala nola produktu arriskutsuak ordeztzea, zereginak edo jarduera arriskugarri jakin batzuk aldatzea, eta abar.

4- **Kimioprofilaxia**, edo gaixotasunei aurrea hartzeko botikak ematea, hala nola, meningitisa, malaria eta abar.

Osasun sustapenaren eta prebentzio lanaren tresnetariko bat **osasunerako heziketa** da; horrek informazioa transmititzeaz gain, motibazioa indartzea, norberaren trebetasunak eta autoestimua jorratzen ditu, beharrezkoak baitira osasuna hobetzera bideratutako neurriak hartzeko. Osasunerako heziketak, osasunean azpitik eragiten duten gizarte, ekonomia eta ingurugiro baldintzei buruzko informazioa ez ezik, arrisku faktore eta portaerei dagokiena ere hartzen du, laguntzarako osasun sistemaren erabileraz gain.

2.2.2.2- Bigarren mailako prebentzioa

Prebentzio sekundarioaren funtsezko muina diagnostiko goiztiarra, baheketa edo screening deritzona da. Antzemate goiztiarrerako programa sintomarik gabeko langile populazio jakin batean gaixotasun bat hasikinetan edo goiz detektatzeko egitarau **epidemiologikoa** da, prebentzio edo tratamendu eraginkor edo sendatzailearen bitartez erikortasun eta/edo hilkortasun tasak murrizteko helburua duena. Langileen berriazko medikuntza miaketak prebentzioaren eremu honetan sartzen dira.

Hori abiapuntutzat hartuta, ondorioak zehaztuko dira eta lanpostuaren arriskuek osasunari kalte egin ote dioten jakinaraziko da; horrekin batera, lanari dagozkion prebentzio gomendioak ere egingo dira.



2.2.2.3- Hirugarren mailako prebentzioa

Bere helburua osasuna **lehengoratzea** da, gaixotasuna agertu ondoren. Gaixotasun bat edo sintoma jakin batzuk sendatu edo ezitzeen saiatzeko tratamendua aplikatzean datza, eta honen jardueretan ondorioen prebentziora eta bizkortze fisiko, okupazional eta psikologikora zuzendutakoak daude, izan ere funtzio horiek denak prebentzio zerbitzuen osasun arlokoak baitira. Beraz, berak emango ditu prebentzioa benetan lortzeko beharrezkoak diren gomendioak.

Gaixotasun bat lanbidearen ondorioz sortu dela susmatzen denean, OSALANeko Zuzendari Nagusiaren 2007ko abenduaren 11ko Aginduan ezarritako prozeduraren bidez deklaratu behar da.

Gaixotasun bat gertatu denean, beraren detekzioaren ostean 1299/2006 Errege Dekretuan jasotakoaren arabera deklaratu behar da –Dekretu horretan, Gizarte Segurantzako sistemaren lanbide gaixotasunen koadroa onartzen da eta haien jakinarazpen eta erregistrarako irizpideak ezartzen dira-.

2.2.2.4- Isilpekotasuna

Aipatu egingo da **enpresaburuak** osasun zaintza bermatuko diela langileei, eta horien onespina beharko dela aurrera eramateko, salbuespenak salbuespen, hau da, arrisku espezifikoak babesteaz **lege xedapenik** badago edo lan baldintzek langileen osasun egoeran dituzten ondorioak ebaluatzeke edo langilearen osasun egoera berarentzat, gainerako langileentzat edo enpresarekin harremana duten beste pertsonentzat **arriskutsua** den **egiaztatzeke** miaketak **ezinbestekoak** badira haien onespenez ez dela beharko.

Emaitzak langileei isilpean jakinaraziko zaizkiela eta medikuntzazko informazio pertsonala langileen osasun zaintza daramaten medikuntza langileek eta osasun agintariek baino **jasoko** ez dutela ere jasoko da, eta ezingo zaizkiela ez enpresaburuari ez bestelako pertsonari eman langilearen **onespen adierazirik** gabe.

Medikuntza zerbitzu batek bere bezero diren enpresetako langileen osasun zaintzarako burutzen duen laneko arriskuen prebentzio lana egiteko langileak ematen dizkion datu guztien **tratamenduaren arduraduna** kanpoko prebentzio zerbitzua dela eta langileak bere bezeroak direla adieraziko da, eta **ondorioak** jakinarazi behar dizkietela, langileak lanpostuan jarduteko duen gaitasunari dagokionez soilik.

Kanpoko prebentzio zerbitzuaren eta enpresaren arteko kontratuzko harremana amaitutakoan langileen **datuak nora** joango diren adieraziko da, eta datu pertsonalak **gordetzeari** buruzko eginbeharrak ere bai.



2.2.2.5- Dokumentazioa

Itunean hau zehaztu ahal izango da:

- **Enpresaburuak** bere eginbeharrei buruzko **dokumentazioa** prestatu eta gorde beharko duela: Laneko **arriskuen prebentzio plana**, laneko segurtasun eta osasunerako **arriskuen ebaluazioa**, prebentzio planaren plangintza, langileen **osasun egoeraren kontrolak egitea** eta kontrolotatik ateratako ondorioak eta langileari egun bateko lanerako ezgaitasuna baino luzeagoa eragin dioten **lan istripuen eta lanbide gaixotasunen zerrenda**.
- Prebentzio zerbitzuko **osasun arloak laneko historia klinikoak**, langileen artean gertatzen diren **gaixotasunen zerrenda** eta **osasun arrazoiagatiko lan kanpoaldiak** eduki beharko dituela, eta bere dokumentazioa osasun agintarien esku edukiko duela **informazio sistema** egokiak ezartzeko, horrela, eskumena duten lan agintaritzekin batera, laneko **arriskuen mapak** prestatu ahal izateko, langileen osasunari eragin diezaioketen patologien identifikazio eta prebentziorako **azterlan epidemiologikoak** egin ahal izateko eta langileen osasunarekin zerikusia duten **azterlan, ikerketa eta estatistikak** prestatu eta zabaltzeko.
- Enpresetan egiten dituzten osasun jardueren inguruan prebentzio zerbitzuak eta enpresaburuak bete behar dituzten eginkizunak ebaluatu eta kontrolatzeko, dokumentazio horrek eskura egon behar duela adieraziko da.

3- ERAGINKORTASUNAREN BALIOESPENA

Nahitaezkoa da laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean txertatzearen eraginkortasunaren balioespena sartzea, itundutako prebentzio lanetan laneko arriskuen **prebentzio plana** ezartzen eta aplikatzen dela aztertuz. **Jarduera** horiek **konkretuak** izan behar dute eta **osasun-langile eta baliabide material konkretuekin** eginak.

4- OROITIDAZKIAK

Prebentzio zerbitzu gisa jarduten duten erakunde espezializatuak eskumena duten lan eta osasun agintaritzen esku eduki beharko dute **urteko oroitidazkia**, aldi horretan zerbitzu eman dieten enpresak edo lantokiak bereizita jasoko dituen, eta zerbitzuon izaera kasuan-kasuan adieraziko duena.

Halaber, prebentzio zerbitzu gisa diharduten enpresei Laneko Arriskuen Prebentzioko Legearen 39. artikuluko 2 d) atalak aipatzen dituen **urteko oroitidazkia eta urteko programazioa** eman behar dizkiete, artikuluko horretan jasotzen den bezala **Segurtasun eta Osasun Batzordeak** ezagutu ahal ditzan.



I. ERANSKINA

LANGILEEN OSASUN-ZAINTZA ITUNAREN ATALAK.

- Enpresaz kanpoko prebentzio zerbitzu gisa diharduen **erakunde espezializatuaren identifikazioa**
- **Osasun Agintaritzaren Ebazpena**, Prebentzio Zerbitzuak osasun zaintzan jarduteko duena.
- **Jardueraren hartzaille izango den enpresaren identifikazioa**, eta jarduera hori enpresaren **zein** **antokitan** eta **zenbat langilerentzat** gauzatuko den zehaztea, PZAko I. eranskinetakoak diren ala ez argituta.
- **Itundutako enpresek** merkataritzazko, finantzazko edo bestelako loturarik ez **dutela adieraztea**, prebentzio zerbitzu gisa jardutea besterik.
- Enpresan garatu beharreko prebentzio lanaren zertzeladak, horiek aurrera eramateko **baliabide eta** **ekintza konkretuak** zehaztuta.
- Osasun zaintza egiteko **baliabideak**
- **Baliabide materialak**
- **Giza baliabideak**
- Osasun zaintzako **ekintzak** (zehaztu bakoitzean zer sartzen den)
- **Taldearen osasun zaintza**
- **Banakako osasun zaintza**
- **Larrialdiko eta lehen sorospenerako neurriak**
- **Osasun zaintzaren bestelako zertzeladak**
- **Osasun jarduera egikaritzeko epeak**
- **Prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean txertatzearen eraginkortasunaren balioespena**
- **Oroitidazkiak**
- **Itunaren iraupena**
- **Kontratuaren baldintza ekonomikoak**

**II. ERANSKINA**

EGIAZTAPEN ZERRENDA

Egiaztapen zerrenda honi esker osasun-zaintza itunaren atal guztiak jorratu ditugun jakin ahal izango dugu (ikusi I. eranskina, protokolo eskema).

	BAI	EZ
OSASUN-ZAINTZA ITUNA		
IDENTIFIKAZIOA		
Erakunde espezializatua identifikatzen da		
Prebentzio Zerbitzuak osasun zaintzako jardueran aritzeko daukan Osasun Baimenaren Ebazpena jasotzen da		
Jardueraren hartzailea den enpresa identifikatzen da		
Itunean sartzen diren langileen kopurua adierazten da eta PZAko I. eranskinean sartzen diren ere bai		
Ítundutako enpresek merkataritzazko, finantzazko edo beste edozelako loturarik , prebentzio zerbitzua ematea besterik, ez daukatela adierazten da.		
HELBURUA		
Kontratuaren helburu konkretua zehazten da		
BALIABIDEAK ETA EKINTZAK		
Baliabideak		
Baliabide materialak		
Enpresaren esku jartzen diren baliabide konkretuak zehazten dira (erreferentziako osasun zentroa...)		
Giza baliabideak		
Enpresaren esku jartzen diren baliabide konkretuak zehazten dira (izendatutako OOU...)		
Medikuak Laneko Medikuntzako espezialistak edo Enpresako Medikuen diploma duten sendagileak direla zehazten da		
Erizainak Enpresako Erizaintzan diplomadunak direla zehazten da		



Ekintzak		
Taldearen osasun zaintza		
Prebentzio zerbitzuko osasun-langileek langileen artean gertatzen diren gaixotasunak eta osasun arrazoiagatik gertatzen diren lan kanpoaldiak ezagutu behar dituztela eta enpresaburuak gaixotasun horiek eta osasunagatiko kanpoaldi horiek jakinarazteko betebehar korrelaziozkoa duela zehazten da		
Itundutakoaren arabera enpresaren eta KPZren artean gaixotasunak eta osasunagatiko kanpoaldiak komunikatzeko prozedurak egongo direla zehazten da		
Epidemiologia		
Osasun-langileek langileen osasun zaintzaren eta arriskuak balioestearen emaitzak irizpide epidemiologikoekin aztertuko dituztela zehazten da		
Lanbideko arriskuen mende egotearen eta osasunerako kalteen artean egon litezkeen erlazioak ikertu eta aztertzeko eta laneko baldintzak eta ingurugiroa hobetzera bideratutako neurriak proposatzeko osasun-langileak zerbitzuaren gainerako kideekin elkarlanean arituko direla zehazten da		
Banakako osasun zaintza		
Osasun zaintza berariazko protokoloen mende egongo dela zehazten da		
Lanean hasi ondoren edo osasunerako arrisku berriak dituzten berariazko zereginak eman ondoren langileen osasunaren hasierako ebaluazioa egingo dela zehazten da		
Langileen osasunaren ebaluazioa aldi-aldi egingo dela zehazten da		
Osasun arrazoiagatiko kanpoaldi luzearen ondoren lanera itzultzen diren langileen osasunaren ebaluazioa egingo dela zehazten da		
Langileen osasunaren kalteak detektatzen direnean edo osasuna zaintzeko aldiroko kontrolen bitartez prebentzio lanak ezegokiak edo gutxiegi direla nabaritzen denean egingo da arriskuen hasierako ebaluazioa berraztertu egingo dela zehazten da		
Enpresaburuak langile bereziki sentikorren, emakume haurdun, erditu berri edo bularra emateko garaian dagoenaren eta adingabeen babes berariaz bermatuko duela zehazten da		
Prebentzio zerbitzuko osasun-langileek bereziki aztertu eta balioetsiko dituzte langile bereziki sentikorre, emakume haurdun, erditu berri edo bularra emateko garaian dagoenari eta adingabeei eragin liezaieketen arriskuak		
Kontratu harremana amaitzean langileek euren laneko historia klinikoaren kopia orri zenbakidunetan jasoko dutela zehazten da, nahiz eta kontratuaren indarraldian eta amaieran nahi duten informazio guztia eskatu ahal izango duten		



Larrialdiko eta lehen sorospeneko neurriak		
Lantokian dagoen prebentzio zerbitzuko osasun langileek lantokian istripuak edo ondoezak jota gertatzen diren langileei lehen sorospenak eta urgentziako arreta eskainiko dizkietela zehazten da		
Enpresa elkartuetan, lehen sorospenetarako, ebakuaziorako eta lekualdaketarako, bete beharreko prozedurak eta eskumenak azaltzen dituen jarduera protokolo gisa, jarduteko bideak ezarriko direla jasotzen du osasun zaintzako itunak		
Osasun zaintzaren bestelako zertzeladak		
Lehen mailako prebentzioa		
Osasun zaintzako itunean jasotzen denez, osasun zaintzaren alorrak egin beharreko prebentzio gomendioak egingo ditu, eta sustapen ekintzak, babes ekintzak (txertaketak), kimioprofilaxi ekintzak eta osasunerako heziketakoak ere bai.		
Hirugarren mailako prebentzioa		
Osasun zaintzako itunak ondorioen prebentziara eta bizkortze fisiko, okupazional eta psikologikora zuzendutako ekintzak jasotzen ditu		
Osasun zaintzako itunak jasotzen duenez, prebentzio zerbitzuak jakinaraziko ditu bai lanbide gaixotasunei buruzko susmoak eta bai lanbide gaixotasuntzat jadanik hartzen diren gaixotasunak.		
Isilpekotasuna		
Langileen osasun zaintza euren onespenearekin egingo dela zehazten da, eta bestela ez dela egingo		
Arrisku espezifikoak babesteaz lege xedapenik badago edo lan baldintzek langileen osasun egoeran dituzten ondorioak ebaluatzeko edo langilearen osasun egoera berarentzat, gainerako langileentzat edo enpresarekin harremana duten beste pertsonentzat arriskutsua den egiaztatze miaketak ezinbestekoak badira osasun zaintza nahitaezkoa dela ohartarazten da		
Osasun zaintzaren emaitzak langileei isilpean jakinaraziko zaizkiela zehazten da		
Medikuntzako informazio pertsonala jasotzeko, sarbidea langileen osasun zaintza egiten duten medikuntza-langileek eta osasun-agintariek bakarrik izango dutela zehazten da, eta ez beste inork		
Medikuntzako informazio pertsonala langilearen berriazko onespene gabe ez enpresaburuari ez bestelako pertsonari ez zaiela emango zehazten da		



Osasun datuen edo bestelako datu pertsonalen tratamendu automatizatua Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren arabera egingo dela zehazten da		
Kanpoko prebentzio zerbitzuaren eta enpresaren arteko kontratuzko harremana amaitutakoan langileen datuekin zer egingo den adierazten da		
Dokumentazioa		
Enpresaburuak Prebentzio planari buruzko dokumentazioa prestatu eta gordeko duela zehazten da		
Enpresaburuak arriskuen ebaluazioari buruzko dokumentazioa prestatu eta gordeko duela zehazten da		
Enpresaburuak langileen osasun egoeraren kontrolak egiteari buruzko eta egiten diren kontrol horietatik ateratzen diren ondorioei buruzko dokumentazioa prestatu eta gordeko duela zehazten da		
Langileari egun batekoa baino lanerako ezintasun luzeagoa eragiten dioten laneko istripuen eta lanbideko gaixotasunen zerrendari buruzko dokumentazioa enpresaburuak prestatu eta gordeko duela zehazten da		
Prebentzio zerbitzuko osasun arloak laneko historia klinikoa izango duela zehazten da		
Prebentzio zerbitzuko osasun arloak langileen artean gertatzen diren gaixotasunen zerrenda eta osasun arrazoiagatik gertatzen diren lan kanpoaldiena eskura izango duela zehazten da		
Prebentzio zerbitzuko osasun arloak beraren dokumentazioa, informazio sistemak martxan jartzea bideratze aldera, denbora guztian osasun arloko agintaritzen eskura edukiko duela zehazten da		
Prebentzio zerbitzuko osasun arloak beraren dokumentazioa, enpresetan burutzen diren osasun jardueren inguruan bai prebentzio zerbitzuak bai enpresaburuak aurrera eraman behar dituzten eginkizunak balioesteko eta kontrolatzeko , denbora guztian osasun arloko agintaritzen eskura edukiko duela zehazten da		
Prebentzio zerbitzuko osasun arloak bere jarduera eremuko zaintza epidemiologikoa egingo duela zehazten da, eta Euskal Herriko Zaintza Epidemiologikoko Sistemak antolatzen dituen osasun kanpainetan eta epidemiologia sareko ekintzetan lankidetzan arituko dela ere zehazten da		
PREBENTZIOA ENPRESAREN KUDEAKETA OROKORREKO SISTEMAN TXERTATZEAREN ERAGINKORTASUNA BALIOESTEA		
Itunak barne hartzen du laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean txertatzearen eraginkortasunaren balioespina egingo dela, itundutako prebentzio lanetan laneko arriskuen prebentzio plana ezartzen eta aplikatzen dela aztertuz		



OROITIDAZKIAK		
Prebentzio zerbitzu modura jarduten duen erakunde espezializatuak dagokion urteko oroitidazkia denbora guztian lan arloko eta osasun arloko agintaritzen eskura edukiko duela zehazten da		
Prebentzio zerbitzuak Laneko Arriskuen Prebentzioko Legearen 39. artikuluko 2 d) atalak aipatzen dituen urteko oroitidazkia eta urteko programazioa enpresari emango dizkiola zehazten da, artikuluko horretan jasotzen den bezala Segurtasun eta Osasun Batzordeak ezagutu ahal ditzan		
BALDINTZA EKONOMIKOAK		
Itunaren baldintza ekonomikoak zehazten dira		
ITUNAREN IRAUPENA		
Itunaren iraupena zehazten da		

Inprimaki hau, Osalanen www.osalan.net web orriko argitalpenen ataletik deskarga daiteke artxibo argitaragarri gisa.